**BARNEALDEKO ETA KOSTALDEKO PAISAIETAKO ELEMENTUAK BIRPASATZEN.**

1. IRAKURRI ESALDIA, LOTU MARRAZKIAREKIN ETA IDATZI MARRAZKIAK ADIERAZTEN DUEN ELEMENTUA.

Mugitzen ez den ur multzoa da.

Zuhaitzez osatutako lur zatia da.

Bi mendien artean dagoen beheko lur zatia da.

Mendian jaio eta itsasoan hiltzen den ur “errepidea” da.

Lur zati laua (lisoa) da.

Lur zati altua da.

Arez edo harriz osatutako lur zatia da.

Alde guztietatik itsasoko urez inguratuta dagoen lur zatia da.

Ur gaziz (gatza duena) osatuta dagoen eremu zabala eta sakona da.

Itsasora sartzen den lur zatia da.

Lur artean sartzen den itsaso zatia da.

Itsaso ertzean dagoen lur zati altua eta harritsua da.